

Otsailak 22, Emakumeen eta Gizonen Soldata Berdintasunaren aldeko eguna
**Emakume eta gizonen arteko soldata arrakalarekin
amaitzeko ausardia politikoa behar da,
politika feministak behar ditugu**

2017ko otsaila



www.lab.eus

AURKIBIDEA

Emakume eta gizonen arteko soldata arrakalarekin amaitzeko ausardia politikoa behar da. Politika feministak behar ditugu	5
Emakumeen soldata %33,6a igo beharko litzateke gizonen soldatarekin parekatzeko	6
Soldata arrakala emakumeek, jendartean zein lan munduan, pairatzen duten diskriminazio estrukturalaren adierazlea da	7
Diskriminazioarekin amaitzeko, politika feministetara jauzia	8

Emakume eta gizonen arteko soldata arrakalarekin amaitzeko ausardia politikoa behar da. Politika feministak behar ditugu

Gehienentzat ezaguna ez bada ere, otsailaren 22an emakume eta gizonen soldata berdintasunaren aldeko eguna da. Egun honen leloak aipatutako berdintasuna, oraindik ere, lortzetik oso urrun gabiltzala erakusten dute datuak tamalez.

Emakume eta gizonen soldaten arteko arrakala ez da gauza berria, baina kezagarriena da arrakala honek 2009tik hona gora egiten jarraitzen duela etengabe Nafarroaren kasuan, eta EAEren kasuan azken urteetan apur bat murriztu bada ere oraindik ere esanguratsua izaten jarraitzen du.

Soldata – egituraren urteko inkesta. Urteko batzbesteko irabazia (eurotan) 2009-2014

Nafarroa	Emakumeak	Gizonak	Aldea
2009	19.487,55	26.755,77	7.268,22
2010	19.927,15	26.982,49	7.055,34
2011	19.977,24	27.834,48	7.857,24
2012	19.462,13	27.632,80	8.170,67
2013	19.364,43	27.848,15	8.483,72
2014	20.163,10	28.659,74	8.496,64

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa	Emakumeak	Gizonak	Aldea
2009	22.502,47	28.889,92	6.387,45
2010	22.706,10	29.708,66	7.002,56
2011	22.449,59	29.492,66	7.043,07
2012	22.313,41	30.084,89	7.771,48
2013	22.687,39	30.312,55	7.625,16
2014	23.781,55	31.271,00	7.489,45

Emakumeen soldata %33,6a igo beharko litzateke gizonen soldatarekin parekatzeko.

Aurreko urteko ekainean INEk kaleratutako azken datuetatik, 2014ko datuetatik alegia, hurrengoak ondoriozta daiteke:

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, emakumeen urteko soldata gordina 7.489,45 euro gutxiagokoa izan zen, bataz bestez, gizonezkoen urteko soldata gordinarekin alderatuz.


Nafarroaren kasuan, emakumeek, bataz bestez, 8.496,64 euro gutxiago jaso zuten gizonezkoekin alderatuz.

Hortaz, azken datuen arabera, Hego Euskal Herriko emakumeek, bataz bestez, bere kide gizonezkoak baino 7.710 euro gutxiago irabazten dute. Beraz, **emakumeen bataz besteko soldatak %33,6a handitu beharko luke gizonezkoenarekin parekatzeko.**

BATAZBESTEKO IRABAZIA – 2014	GIZONAK	EMAKUMEAK	ALDEA
Nafarroa	28.659,74	20.163,10	-8.496,64
Araba-Bizkaia-Gipuzkoa	31.271,00	23.781,55	-7.489,45
Hego Euskal Herria	30.686,34	22.976,66	-7.709,68

Europako Estatistika Bulegoak (Eurostat), halere, gizon eta emakumeen arteko soldata arrakala kalkulatzekoan gizonezkoen lan orduko soldata gordina eta emakumezkoen lan orduko soldata gordinaren arteko aldea izaten du kontuan.

Definizio honen arabera, Hego Euskal Herriko soldata arrakala %14,3koa da; %16,6koa Nafarroan eta %13,8koa EAEn.

INEk publiko egindako azken datuen arabera (2014ko datuen arabera)

Soldata arrakala emakumeek, jendartean zein lan munduan, pairatzen duten diskriminazio estrukturalaren adierazlea da

Emakume eta gizonen soldaten arteko arrakala, gaurko sistema kapitalista heteropatriarkalak ezarri duen sexuen araberako lan banaketaren ondorioetako bat baino ez da. Emakumeoi zaintza eta etxeko lanak egotzi izana, emakumeen lan merkaturatzea oztopatu, eta era berean lan merkatu horretan aitortza eta maila baxuagoko lanetara bideratu gaitu. Oraindik ere emakumeak gara, lan merkatuan lan baldintza prekarioenak eta ezegonkortasuna pairatzen dugunak. Lanaldi partzialen % 78,3a guk betetzen dugu, eta gure behin behinekotasun tasa %26,7koa da gizonezkoena % 21ekoa denean. Soldata ezberdintasuna ez da beraz emakumeok lan munduan jasaten dugun diskriminazio bakarra.

Datuak erakusten duten moduan emakumeak lan merkatura sartu izanak ez du ekarri zaintza lanen banaketa erantzunkide batetik, ezta lan merkatuan lan baldintzen parekatzea.

Emakumeon lan baldintzak prekarioagoak izatea, gizonetako baino gutxiago kobratzeak, gure burujabetza ekonomikoa mugatu eta menpekoak bihurtzen gaitu, gure bizi baldintzetan eraginez. Egun pairatzen ditugun diskriminazio egoera hauek gainera, eragin eta ondorio kaltegarriak eragiten dituzte gure etorkizuneko erretiro zein langabeziako prestazioei.

Diskriminazioarekin amaitzeko, politika feministetara jauzia

Gaurko egunek, eta egun hauetan publiko egiten ditugun datuek argi erakusten dute orain arteko berdintasun politiken porrota zein diskriminazioa gainditzeko dagoen borondate politiko eskasa.

Bada garaia sistema kapitalista hetereopatriarkalaren logikaren baitan kokatzen diren berdintasun lege, politika eta neurrietatik benetako politika feminista ausartetara jauzia emateko. Egungo sistemak ezarritako sexuen arabera lan banaketan eta gizon eta emakumeen arteko hierarkia harremanetan oinarritzen den jendarte zein lan harreman eredutik, emakume eta gizonen arteko harreman justu eta parekidetan zein lanaren aitortza integrala oinarri izango duen lan harreman eredu berrira trantsizioa egitea ahalbideratuko duten politika feministak behar ditugu. Ausardia eta borondate politikoa da instituzio, botere publiko zein agintari politikoei eskatzen dieguna, egoera honekin amaitzea benetan interesatzen bazaie.